

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zuen ingurua aprobetxatuta

- ✓ Nahi izanez gero, behin lan-unitatea amaituta eta ikaskideek emandako informazioaren atal garrantzitsuenak jasota, **idatzi gaztetxoan aldizkarian argitaratzeko moduko artikulua bat**, non ezagutu dituzun hiri-tribuen berri emango duzun. Hona hemen titulu-proposamen bat: "Oihan modernoetako tribuak."
- ✓ **Ba al duzu hiri-tribu bateko kidea den ezagunik, ikaskiderik, seme-alabarik, auzokiderik...? Ez galdu hari elkarrizketa bat egiteko aukera paregabea!** Behin elkarrizketa eginda, kontatu ikaskideei zer informazio eman dizun, zerk harritu zaituen gehien...
- ✓ Ingurua arretaz aztertuta, uste baino "tribu" gehiago dagoela konturatuko zara (Alaveszaleak, kirolzale amorratuak, mendizaleak...) **Aukeratu "tribu" horietako bat eta prestatu haren inguruko azalpen umoretsu bat:** zer janzkera duten, zer gustatzen zaien, zer *ideologia* duten... Bestalde, konturatu zara untitatean zehar landu ditugun hiri-tribuak ilunak, misterioitsuak, eta, nolabait esateko, tristeak direla. **Animatuko zara guztiz kontrakoa den bat sortzen eta deskribatzen? Asmatuko duzu alaiak, dibertigarriak, koloretsuak eta baikorrak diren horien tribua?** Nola janzten dira, zer dute gustuko, zer ideologia dute...? Hona hemen izen posible batzuk: *Happy flower*-ak, Ortzadarraren seme-alabak, Muxu-banatzailleak... **Hiri-tribu horien aurkezpena egiteko, Pecha Kucha izeneko teknika erabili ahal duzu. Webgune honetan aurkituko duzu aurkezpen-mota horren erreferentzia bat: www.pechakucha.org.**

Internet aprobetxatuta

- ✓ **Aukeratu azalpenetan atera ez den triburen bat eta jaso haren inguruko jakingarri garrantzitsuenak.** Ondoren, labur-labur bada ere, kontatu ikaskideei lortutako informazioa.
- ✓ Aitziber Garmendiak aurkeztan duen **Batek daki** izeneko saioan, atal bat hiri-tribuei eskaini zioten. Behin saioa ikusita, egin ikaskideei ahozko laburpen txukun bat.